



Orden de la Consejera de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca, por la que se ordena el inicio del procedimiento de elaboración de una disposición de carácter general por el que se crea el Órgano Estadístico Específico del Departamento de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca, y se establece su organización y funcionamiento.

La Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, establece en su artículo 12 que los procedimientos a los que hace referencia la misma, se iniciarán por orden del consejero o consejera titular del departamento competente por razón de la materia sobre la que versen. Asimismo, en su artículo 13, establece los requisitos y el contenido mínimo de la orden de inicio.

En cumplimiento de lo anterior, el objeto de la presente orden es acordar el inicio del procedimiento para la elaboración del decreto por el que se crea el Órgano Estadístico Específico del Departamento de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca, y se establece su organización y funcionamiento.

Tras el comienzo de la XIII legislatura, la reorganización de los Departamentos del Gobierno Vasco, y la entrada en vigor del Decreto 438/2024, de 11 de diciembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca, es necesaria la creación del Órgano Estadístico Específico de dicho Departamento.

El Estatuto de Autonomía del País Vasco aprobado por la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, en su artículo 10.37, atribuye a la Comunidad Autónoma de Euskadi la competencia exclusiva en materia de estadística del País Vasco para sus propios fines y competencias. La Ley 4/1986 de 23 de abril, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi, al establecer la organización estadística determina que, además del Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística, resultan competentes en materia de estadística los departamentos del Gobierno que se doten de un Órgano Estadístico Específico (O.E.E.) que permita diferenciar claramente entre su actuación estadística y la administrativa.

El Decreto 180/1993, de 22 de junio, regula la creación, organización y funcionamiento de los Órganos Estadísticos Específicos de los Departamentos del Gobierno Vasco, de conformidad con lo previsto en los artículos 26 y 27 de la Ley 4/1986, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi y demás normativa complementaria.

Tal y como se prevé en el Decreto 180/1993, de 22 de junio, por el que se regulan los Órganos Estadísticos Específicos de los Departamentos del Gobierno, cada departamento solamente podrá dotarse de un único órgano estadístico específico.

Las razones que aconsejan abordar la citada regulación provienen de la reestructuración de las áreas fijadas por el Decreto 438/2024, de 11 de



diciembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca, y el Decreto 18/2024, de 23 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

Según indica la Disposición Adicional quinta del Decreto 18/2024, de 23 de junio, el Departamento de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad estará integrado por los órganos y unidades del extinto Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, con excepción de la Viceconsejería de Agricultura, Pesca y Política Alimentaria y de la Dirección de Puertos y Asuntos Marítimos.

Así mismo, en virtud de lo dispuesto en el apartado 1 de la Disposición Adicional decimotercera del Decreto 18/2024, las unidades y medios materiales y personales de la Dirección de Servicios del extinto Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente se integrarán en las respectivas Direcciones de Servicios del Departamento de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad y del Departamento de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca.

El artículo 5.1-t) del Decreto 438/2024, de 11 de diciembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca señala que corresponde a la Dirección de Servicios llevar a cabo la gestión y coordinación en materia de sistemas de información, estadística, estudios y análisis. No obstante, el apartado 2 del artículo 4 adscribe el Órgano Estadístico Específico del departamento a la Dirección de Gabinete y Comunicación. Para resolver esta dicotomía se ha iniciado la tramitación de un decreto que modificación el decreto de estructura para integrar en la Dirección de Gabinete y Comunicación tanto la función de estadística como la adscripción del órgano.

En cuanto a los requisitos formales, el Decreto 180/1993, de 22 de junio, por el que se regulan los Órganos Estadísticos Específicos de los departamentos del Gobierno exige que su creación se haga por Decreto, acompañado de una memoria justificativa de su creación y de los medios materiales y personales adscritos al mismo, junto con la descripción de sus objetivos y planes de actuación. Así mismo, habrá de emitir informe la “Euskal Estatistika Batzordea/ Comisión Vasca de Estadística”.

De conformidad con los artículos 12 y 13 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general, y demás normas concordantes y de general aplicación,

RESUELVO

Primero. - Acordar el inicio del procedimiento de elaboración del Decreto por el que se crea el Órgano Estadístico Específico del Departamento de Alimentación,

Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca, y se establece su organización y funcionamiento.

Segundo. - No se realiza la consulta pública previa regulada en el artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, por ser la nueva disposición de carácter general consecuencia de la reorganización de los departamentos del Gobierno Vasco, así como por carecer de impacto significativo en la actividad económica y no imponer obligaciones relevantes a sus destinatarios.

La tramitación del expediente corresponde a la Dirección de Servicios del Departamento del Departamento de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca.

Una vez redactado el texto del proyecto de Decreto, el mismo se someterá a aprobación previa de la Consejera de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca.

Tercero.- Con independencia de los requisitos o trámites señalados en el apartado undécimo de la presente Orden de inicio, se deberá elaborar una Memoria económica relativa al proyecto de Decreto, en la que se analizarán las repercusiones económicas de la estructura propuesta, de conformidad con el artículo 42 del Decreto 464/1995, de 31 de octubre, por el que se desarrolla el ejercicio de control económico interno y la contabilidad en el ámbito de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Así mismo, deberá incluirse en la memoria la justificación de la creación del Órgano Estadístico Específico del Departamento, así como de los medios materiales y personales adscritos al mismo, junto con la descripción de sus objetivos y planes de actuación, en virtud de lo dispuesto en el Decreto 180/1993, de 22 de junio, por el que se regulan los Órganos Estadísticos Específicos de los departamentos del Gobierno Vasco.

Cuarto. - La presente Orden de inicio será objeto de publicación en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Quinto. - La incidencia en el presupuesto de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi es la correspondiente a la creación del Órgano Estadístico Específico del Departamento de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca, con los recursos materiales y personales similares a los del Órgano Estadístico Específico del extinto Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente. Dicho órgano contará con una plaza de Técnico estadístico.

Sexto. - El nuevo Decreto es viable jurídica y materialmente, con referencia al derecho vigente en Euskadi y al de la Unión Europea, siendo adecuado al orden de distribución de competencias para con el Estado y para con los órganos forales de los territorios históricos y las entidades locales, así como la adecuación a los principios de buena regulación.

Séptimo. - El Decreto no tiene relevancia desde el punto de vista del género, no conlleva beneficios y cargas administrativas para la ciudadanía ni impacto sobre las pequeñas y medianas empresas.

Octavo. - Con la entrada en vigor del Decreto, quedará derogado el Decreto 188/2021, de 27 de julio, de creación del órgano estadístico específico del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente y por él se establece su organización y funcionamiento en lo que respecta a las materias que han pasado a ser competencia del actual Departamento de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca

Noveno. - La Consejera de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca dictará la Orden de aprobación previa, adjuntando el texto bilingüe así aprobado y el resto de los documentos referidos en el artículo 15 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general.

Décimo. - No se considera necesario emitir la memoria económica específica prevista en el artículo 15.5 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, dado el bajo impacto económico del Decreto, por ser una norma organizativa.

Undécimo. - La tramitación del expediente se realizará a través de la aplicación informática de tramitación electrónica “Tramitagune”, de conformidad con el Acuerdo de Consejo de Gobierno de 12 de diciembre de 2017, por el que se aprueban Instrucciones sobre la aplicación del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General publicado mediante Resolución 132/2017, de 12 de diciembre, del Director de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento.

El procedimiento de elaboración se materializará de conformidad con el marco jurídico definido en la citada Ley 6/2022, de 30 de junio, por lo que el proyecto se someterá a los siguientes trámites preceptivos:

1.- El órgano competente para la instrucción del expediente elaborará con carácter preceptivo una memoria del análisis de impacto normativo, que deberá contener o reiterar respecto a la orden de inicio cualquier extremo que pueda ser relevante a criterio del órgano proponente y, en todo caso, lo previsto en el artículo 15.3 de la Ley 6/2022, de 30 de junio.

2.- Informe preceptivo de “Euskal Estatistika Batzordea/ Comisión Vasca de Estadística”, que deberá emitirlo dentro del procedimiento de elaboración, y antes de la aprobación de la disposición. Transcurrido un mes sin haber emitido dicho informe se entenderá que podrán seguirse las actuaciones correspondientes. (Artículo 1.1-b del Decreto 180/1993, de 22 de junio, por el que se regulan los Órganos Estadísticos Específicos de los departamentos).

3.- Informe de la Dirección de Normalización Lingüística de las Administraciones Públicas, de conformidad con el tenor de lo dispuesto en el artículo 14.2-l) del

Decreto 389/2024, de 26 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Cultura y Política Lingüística.

4.- Informe de la Dirección de Gobierno Abierto y Buen Gobierno, de acuerdo con el artículo 12.1-n) del Decreto 317/2024, de 29 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno.

5.- De acuerdo con lo señalado en las Directrices sobre la Evaluación Previa del Impacto de Género y la Incorporación de Medidas para Eliminar Desigualdades y Promover la Igualdad entre Hombre y Mujeres (directriz primera, apartado 2.1.b), aprobadas por el Consejo de Gobierno con fecha 21 de agosto de 2012, en relación lo dispuesto por el artículo 20 del Texto Refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2023 de 16 de marzo, el presente proyecto de Decreto está exento de la realización del Informe de Impacto de Género.

No obstante, de acuerdo con lo establecido por el artículo 20.6 de la citada Ley, se remitirá el Proyecto de Decreto a Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer para verificar la correcta aplicación de la misma y, en su caso, proponer mejoras en dicho ámbito.

6.- Informe de la Dirección de Empleo Público, de conformidad con el artículo 17-l) del Decreto 317/2024, de 29 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno.

7.- Informe de Legalidad del Servicio Jurídico Central, en aplicación de lo previsto en el artículo 11.2-a) del Decreto 144/2017, de 25 de abril, del servicio Jurídico del Gobierno Vasco.

8.- Informe de la Oficina de Control Económico, de conformidad con lo establecido en el artículo 7.a) del Decreto 313/2024, de 29 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Hacienda y Finanzas, en relación con las previsiones contenidas en el capítulo IV del Título III del texto refundido de la Ley de Control Económico y Contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi, aprobado por el Decreto Legislativo 2/2017, de 19 de octubre; y en el Decreto 464/1995, de 31 de octubre, por el que se desarrolla el ejercicio del control económico interno y la contabilidad en el ámbito de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Deberá emitirse en el plazo de 15 días a contar desde la recepción, en la Oficina de Control Económico, del texto del proyecto de disposición normativa acompañado de la documentación requerida en función de su contenido.

9.- Una vez finalizada la tramitación del proyecto de norma, y con carácter previo a su aprobación por el Consejo de Gobierno, se elaborará una memoria sucinta de todo el procedimiento, reseñando los antecedentes, trámites practicados y su resultado y las modificaciones realizadas en el texto del proyecto para adecuarlo

a las observaciones y sugerencias de los diferentes informes evacuados, y de manera especial a las contenidas en los de carácter preceptivo.

Duodécimo. - En cumplimiento de lo dispuesto en el Acuerdo de Consejo de Gobierno de 9 de febrero de 2010, se harán públicas en el espacio colaborativo Legesarea tanto la Orden de inicio como la de aprobación previa con el texto del proyecto de Orden.

Asimismo, toda la información de relevancia jurídica que conforma el expediente será publicada en el Portal de la normativa vasca Legegunea, en cumplimiento del artículo 13.d) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y del artículo 7 de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno.

Decimotercero. - Conforme al artículo 8.1 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, así como al artículo 14.5 de la Ley 6/2022, el texto elaborado debe ser redactado de forma bilingüe, garantizando la igualdad entre las dos lenguas en la elaboración de las versiones lingüísticas a lo largo de todo el proceso de redacción de la norma. El texto deberá estar redactado de forma bilingüe, antes de someterse a su aprobación previa y ulterior tramitación en la fase de instrucción. El sistema de redacción que se utilizará para el cumplimiento de lo dispuesto en el citado artículo 8.1 de la Ley 10/1982, será la traducción por los servicios de traducción IZO de la versión en castellano del texto normativo. Asimismo, y en virtud del artículo 27.3 de la Ley 6/2022, a fin de garantizar la exactitud y equivalencia de la versión del texto articulado del proyecto en euskera respecto de la versión en castellano, y viceversa, de los textos que hayan de ser finalmente aprobados y que hayan de publicarse en el Boletín Oficial del País Vasco, el documento remitido para su publicación deberá contar con la certificación de la exactitud y equivalencia de la versión en euskera respecto a la versión en castellano, y viceversa, emitida por el Servicio Oficial de Traductores del IVAP.

Decimocuarto. - Una vez ultimado el procedimiento establecido, deberá someterse el proyecto de Decreto a la aprobación final del Consejo de Gobierno, y remitirse posteriormente para su publicación al Boletín Oficial del País Vasco. (Artículo 18 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno).

Agindua, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, zeinaren bidez agintzen baita hasiera ematea Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren Estatistika Organo Berezia sortzeko eta haren antolaketa eta funtzionamendua ezartzeko xedapen orokor bat egiteko prozedurari.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak 12. artikuluan ezartzen duenez, xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko dira lege horretan aipatzen diren prozedurak. Era berean, 13. artikuluan, hasteko aginduaren betekizunak eta gutxieneko edukia ezartzen ditu.

Aurrekoa betetzeko, agindu honen xedea da Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren Estatistika Organo Berezia sortzeko eta haren antolaketa eta funtzionamendua ezartzeko dekretua egiteko prozedura hastea.

XIII. legegintzaldia hasi, Eusko Jaurlaritzako sailak berrantolatu eta Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 11ko 438/2024 Dekretua indarrean jarri ondoren, beharrezkoa da sail horren estatistika-organo espezifikoa sortzea.

Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak, 10.37 artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoari esleitzen dio Euskal Autonomia Erkidegoko estatistikaren arloko eskumen eskusiboa, bere helburu eta eskumen propioetarako. Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen arabera, Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística delakoaz gain, estatistika-gaietan eskumena dute estatistika-jarduera estatistikoa eta administratiboa argi eta garbi bereiztea ahalbidetuko duen estatistika-organo berezia (EEE) duten Jaurlaritzako sailek.

180/1993 Dekretuak, ekainaren 22koak, Eusko Jaurlaritzako sailen estatistika-organo berezien sorrera, antolaketa eta funtzionamendua arautzen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko 4/1986 Legearen 26. eta 27. artikuluetan eta gainerako arau osagarrietan aurreikusitakoaren arabera.

Jaurlaritzako sailen estatistika-organo espezifikoak arautzen dituen ekainaren 22ko 180/1993 Dekretuan aurreikusten den bezala, sail bakoitzak estatistika-organo espezifiko bakarra izan dezake.

Erregulazio horri ekitea gomendatzen duten arrazoiak Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 11ko 438/2024 Dekretuan eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuan ezarritako arloen berregituraketatik datoz.

Ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren bosgarren xedapen gehigarriak adierazten duenez, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Saila

iraungitako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko organo eta unitateek osatuko dute, Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzak eta Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak izan ezik.

Era berean, 18/2024 Dekretuaren hamahirugarren xedapen gehigarriaren 1. apartatuan xedatutakoaren arabera, iraungitako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Zerbitzu Zuzendaritzaren unitateak, baliabide materialak eta giza baliabideak Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Saileko eta Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saileko zerbitzu-zuzendaritzetan integratuko dira.

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 11ko 438/2024 Dekretuaren 5.1-f) artikuluen arabera, Zerbitzu Zuzendaritzari dagokio informazio-, estatistika-, azterketa- eta analisi-sistemak kudeatu eta koordinatzea. Hala ere, 4. artikuluen 2. apartatuak Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzari atxikitzen dio sailaren Estatistika Organo Espezifikoa. Dikotomia hori ebazteko, egitura-dekretua aldatzen duen dekretu bat izapidetzen hasi da, Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzan integratzeko bai estatistika-funtzioa bai organoaren atxikipena.

Betekizun formalei dagokienez, Jaurlaritzako sailen estatistika-organo espezifikook arautzen dituen ekainaren 22ko 180/1993 Dekretuak eskatzen du organo horiek dekretu bidez sortzea, eta, horrekin batera, organo horiek sortu izana justifikatzen duen memoria, bai eta organo horiei atxikitako baliabide material eta pertsonalak ere, helburuen eta jarduera-planen deskribapenarekin batera. Era berean, "Euskal Estatistika Batzordeak" txostena egin beharko du.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 12. eta 13. artikuluekin eta aplikatzekoak diren gainerako arauekin bat etorritik, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. – Hasiera ematea Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren Estatistika Organo Berezia sortu eta horren antolaketa eta funtzionamendua ezartzen dituen Dekretua egiteko prozedurari.

Bigarrena. – Ez da egiten aurretiazko kontsulta publikoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan arautua; izan ere, xedapen orokor berria da, Eusko Jaurlaritzako sailak berrantolatzearen ondoriozkoa, eta ez du eragin nabarmenik jarduera ekonomikoan, eta ez die betebeharrak nabarmenik ezartzen hartzaileei.

Espedientea izapidetzea Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Zerbitzu Zuzendaritzari dagokio.

Dekretu-proiektuaren testua idatzi ondoren, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuak onartu beharko du.

Hirugarrena .- Hasteko agindu honen hamaikagarren atalean adierazitako betekizunak edo izapideak gorabehera, dekretu-proiektuari buruzko memoria ekonomiko bat egin beharko da, proposatutako egituraren ondorio ekonomikoak aztertzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 42. artikuluekin bat etorriz. Era berean, memorian jaso beharko da Sailaren Estatistika Organo Berezia sortu izanaren justifikazioa, bai eta hari atxikitako baliabide material eta pertsonalena ere, helburuen eta jarduera-planen deskribapenarekin batera, Eusko Jaurlaritzako sailen estatistika-organo espezifikoak arautzen dituen ekainaren 22ko 180/1993 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Laugarrena. – Prozedura hasteko agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko da.

Bosgarrena. – Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren Estatistika Organo Berezia sortzeari dagokiona izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren aurrekontuan izango duen eragina, desagertutako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren Estatistika Organo Espezifikoaren antzeko baliabide material eta pertsonalekin. Organo horrek estatistikako teknikari plaza bat izango du.

Seigarrena. – Dekretu berria bideragarria da juridikoki eta materialki, Euskadin indarrean dagoen zuzenbideari eta Europar Batasunekoari erreferentzia eginez, eta egokia da eskumenak banatzeko ordenarako, Estatuarekiko eta lurralde historikoetako foru-organoekiko eta toki-erakundeekiko, bai eta erregulazio onaren printzipioetara egokitze ere.

Zazpigarrena. – Dekretuak ez du garrantzirik generoaren ikuspegitik, ez dakarkie onura eta karga administratiborik herritarrei, eta ez du eraginik enpresa txiki eta ertainetan.

Zortzigarrena. - Dekretua indarrean jartzen denean, indargabetuta geratuko da 188/2021 Dekretua, uztailaren 27koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren estatistika-organo espezifikoa sortzekoa eta haren antolaketa eta funtzionamendua ezartzekoa, egungo Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren eskumeneak izatera igaro diren gaiei dagokienez.

Bederatzigarrena. – Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuak aldeztu aurreko onarpen-agindua emango du, eta horrela onartutako testu elebiduna eta Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15. artikuluan aipatutako gainerako dokumentuak erantsiko ditu.

Hamargarrena. - Ez da beharrezkotzat jotzen ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.5 artikuluan aurreikusitako memoria ekonomiko espezifikoa egitea, dekretuaren eragin ekonomiko txikia dela eta, antolamendu-araua baita.

Hamaikagarrena. – Espedientea izapidetze elektronikorako "Tramitagune" aplikazio informatikoaren bidez izapidetuko da, Gobernu Kontseiluaren 2017ko abenduaren 12ko Erabakiarekin bat etorriz. Erabaki horren bidez, xedapen orokorrak egiteko prozedura aplikatzeari buruzko jarraibideak onartzen dira, eta erabaki hori Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren abenduaren 12ko 132/2017 Ebazpenaren bidez argitaratu zen.

Egiteko prozedura aipatutako ekainaren 30eko 6/2022 Legean definitutako esparru juridikoaren arabera gauzatuko da, eta, beraz, proiektuak nahitaezko izapide hauek bete beharko ditu:

1.- Espedientearen instrukzioa egiteko eskumena duen organoak arau-eraginaren azterketari buruzko memoria bat egingo du, nahitaez. Memoria horretan bildu edo berretsiko da hasiera emateko aginduari dagokionez proposamena egin duen organoaren iritziz garrantzitsua izan daitekeen edozein alderdi, eta, nolanahi ere, ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.3 artikuluan aurreikusitakoa.

2.- "Euskal Estatistika Batzordea/Comisión Vasca de Estadística" ren nahitaezko txostena, araua egiteko prozeduraren barruan eta xedapena onartu aurretik egin beharko duena. Hilabete igaro eta txosten hori egin ez bada, dagozkion jarduketak egin ahal izango dira. (Sailetako estatistika-organo espezifikoak arautzen dituen ekainaren 22ko 180/1993 Dekretuaren 1.1-b artikulua).

3.- Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretuaren 14.2-l) artikuluan xedatutakoaren arabera.

4.- Gobernu Irekiaren eta Gobernu Onaren Zuzendaritzaren txostena, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 12.1-n) artikuluen arabera.

5.- Genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioari eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak sartzeari buruzko jarraibideetan adierazitakoaren arabera (lehenengo jarraibidea, 2.1.b apartatua), zeina Gobernu Kontseiluak onartu baitzuen 2012ko abuztuaren 21ean, eta martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren 20. artikuluan xedatutakoari dagokionez, dekretu-proiektu hau salbuetsita dago genero-eraginari buruzko txostena egitetik.

Hala ere, lege horren 20.6 artikuluan ezarritakoaren arabera, dekretu-proiektua Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundera bidaliko da, behar bezala aplikatzen dela egiaztatzeko eta, hala badagokio, arlo horretan hobekuntzak proposatzeko.

6.- Enplegu Publikoaren Zuzendaritzaren txostena, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 17-l) artikulua arabera.

7.- Zerbitzu Juridiko Nagusiaren legezkotasun-txostena, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 11.2.a) artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz.

8.- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena, Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 313/2024 Dekretuaren 7.a) artikuluan ezarritakoaren arabera, urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginaren III. tituluko IV. kapituluaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuan jasotako aurreikuspenei dagokienez. Arau-xedapenaren proiektuaren testua eta edukiaren arabera eskatutako dokumentazioa Kontrol Ekonomikoko Bulegoan jaso eta 15 eguneko epean eman beharko da.

9.- Arau-proiektuaren izapidetzea amaitu ondoren, eta Gobernu Kontseiluak onartu baino lehen, prozedura osoaren memoria labur bat egingo da, honako hauek jasoko dituenak: aurrekariak, egindako izapideak, izapideen emaitzak eta, egindako txostenen ohar eta iradokizunei egokitzearen – batez ere nahitaezko txostenetan egindakoei –, proiektuaren testuan sartutako aldaketak.

Hamabigarrena.- Gobernu Kontseiluaren 2010eko otsailaren 9ko Erabakian xedatutakoa betez, Legesarea lankidetzagunean argitaratuko dira bai hasteko agindua, bai aldez aurreko onarpenari buruzkoa, agindu-proiektuaren testuarekin batera.

Era berean, espedientea osatzen duen garrantzi juridikoko informazio guztia Legegunea euskal araudiaren atarian argitaratuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 13.d) artikulua eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 7. artikulua betez.

Hamahirugarrena. - Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikulua eta 6/2022 Legearen 14.5 artikulua arabera, testua bi hizkuntzetan idatzi behar da, eta bi hizkuntzen berdintasuna bermatu hizkuntza-bertsioak egiteko orduan, araua idazteko prozesu osoan. Testuak bi hizkuntzetan idatzita egon beharko du, aldez aurreko onarpena jaso eta instrukzio-fasean izapidetu aurretik. 10/1982 Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko erabiliko den idazketa-sistema testu arauemailearen gaztelaniazko bertsioa IZO itzulpen-zerbitzuak itzultzea izango da. Era berean, eta 6/2022 Legearen 27.3 artikulua arabera, behin betiko onartu eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko diren euskarazko eta gaztelaniazko testu artikulatuen zehaztasuna eta baliokidetasuna bermatzeko, IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak ziurtagiri bat jaulkiko du argitaratu aurretik, euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak zehatzak eta baliokideak direla egiaztatzeko.

Hamalagarrena. – Ezarritako prozedura amaitu ondoren, Gobernu Kontseiluak behin betiko onartu beharko du dekretu-proiektua, eta, ondoren, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da. (Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18. artikulua).